


15 eta 29 urte bitarteko gazteen erdia euskaldunak dira

Gipuzkoan dago gazte euskaldunen portzentajerik altuena, % 65, alegia, baina hazkunderik nabarmenena Arabako Lurraldearena izan da: lehen aldia da euskaldunen kopuruak erdaldunena gainditzen duena.



Euskararen ezagutzak berebiziko igoera izan du 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, azken zentsuko datuek (2001) erakusten duten bezala. Gazteen % 43,5 euskaldunak dira; 1991n, ordea, gazte euskaldunak % 26,5 ziren.

Euskararen ezagutza Euskadiko 15 eta 29 urte bitarte biztanleen artean. Portzentajeak. 1991-1996-2001



Iturria: Eustat eta bertan egin

Datuak adin-taldean arabera sailkatuz gero, zera antzeman daiteke: aztertutako aldietan (1991-1996-2001) hiru adin-taldeetan gazte euskaldunen kopuruak gora egin du etengabe; gazte erdaldunenak, aldiz, behera egin du. Euskaldunen gorakada bereziki garrantzitsua da 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean.

Euskararen ezagutza Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen artean, adin-taldean arabera. Portzentajeak. 1991-1996-2001

		Euskaldunak	Ia euskaldunak	Erdaldunak
1991	15-29	26,5	31,3	42,2
	15-19	10,1	14,0	9,9
	20-24	8,3	10,3	14,6
	25-29	8,0	14,6	17,8
1996	15-29	35,7	33,6	30,7
	15-19	13,9	11,3	6,1
	20-24	12,0	12,7	10,3
	25-29	9,7	9,7	14,3
2001	15-29	43,5	36,1	20,5
	15-19	14,3	7,7	3,5
	20-24	15,7	13,2	6,5
	25-29	13,4	15,2	10,5

Iturria: Eustat eta bertan egina

Gazte euskaldunen ama-hizkuntza azterturiko lehen bi aldietan euskara izan da. 2001eko datuek, ostera, gaztelania izatera igaro dela adierazten dute. Ia euskaldunen eta erdaldunen ama-hizkuntza hiru aldietan gaztelania dela ikus daiteke.

Euskararen ezagutza Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen artean, ama-hizkuntza. Portzentajeak. 1991-1996-2001

		Euskaldunak	Ia euskaldunak	Erdaldunak
1991	Total	26,5	31,3	42,2
	Euskara	16,1	1,1	0,2
	Gaztelania	7,6	28,9	41,2
	Biak	2,7	1,2	0,2
	Besterik	0,0	0,2	0,6
	Total	35,7	33,6	30,7
1996	Euskara	16,4	0,5	0,1
	Gaztelania	15,2	32,2	30,0
	Biak	4,0	0,8	0,1
	Besterik	0,1	0,2	0,5
	Total	43,5	36,1	20,5
	Euskara	17,0	0,3	0,1
2001	Gaztelania	21,6	35,0	19,3
	Biak	4,8	0,5	0,1
	Besterik	0,1	0,2	1,0

Iturria: Eustat eta bertan egina

2001eko datuen arabera, Gipuzkoa da gazte euskaldun gehien duen Lurralde Historikoa. Euskaldunen kopuruaren gorakada eta erdaldunen beherakada hiru Lurraldeetan ikus daiteke. 1991n Araba izan da erdaldunen portzentajerik

altuena izan duen Lurraldea, baina 2001ean euskaldunen kopuruak erdaldunena gainditu du. Arabak aldaketa nabarmena izan duen arren, gazte euskaldun gutxien duen Lurraldea izaten jarraitzen du.

Euskararen ezagutza Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen artean, Lurralde Historikoen arabera. Portzentajeak. 1991-1996-2001

Araba	Euskaldunak	la euskaldunak	Erdaldunak
1991	10,5	33,9	55,5
1996	19,9	38,3	41,8
2001	27,2	46,3	26,5
Bizkaia			
1991	19,3	33,7	47,1
1996	28,1	37,8	34,0
2001	35,0	42,0	23,0
Gipuzkoa			
1991	45,1	26,3	28,6
1996	55,1	24,6	20,3
2001	65,0	21,5	13,5

Iturria: Eustat eta bertan egina

Erlazionaturiko datu-etaulak:

[1. taula \(pdf, 63 kb\).](#)

[2. Taula \(pdf, 56 kb\).](#)

erlazionaturiko estekak:

[Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak](#)